1.º URTEA

IBAIZABAL

25ª GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Garagarrillaren 22ª

Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1902-ko Baguillaren 22ª

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

BERMEOKO TERTZADUNAK

Bermeon 1902-go Baguillaren 17.ª

IBAIZABAL-en artezkari jauna.

Ill onetako 8.ª eguneko gueia irakurri nebanean, *Chacharra* betondokoa erregalau eutsen orduan baiño bere adore guichiagogaz gueratu nintzan.

Zer eguin jatan itanduten dau Casa-Camiñon lebitapekoak; ia ichasoak iruntsi etenaben; ez oraindiño, beronek iruntsiteko arrizkoan egunero gabiz baiña; orraitiño Amarratza ta beren lagunen bildur gueiago naz, ichasoarenena baiño. Ia Amarratzagaz bat eguinda, Zoroecheko atezaintza edo beste *colocaciño*-rik etedaukan; ez adiskidea, bakizu zuk Zoroecheko atezaiña izateko aurreko aldean *bonbo* andi bat bear dala, *holandes*-en ontzi edo barkuen ichuran, ez guk leguez beti erramua eskuetan dogula erdi goserik ichasoak austen ibillien ibilliaz tripia edo sabela sartu sarturik eukitea.

Edo, ia emen oraintsuan galdu dan lanparien atzean etenabillen. Guizona, ¿zu Casa-Camiñon lebitapekoa zareala ta ori esan? Ni be, Tertzaduna izanez ganera, lebita *venerable* orren azpikoa naz Bermiotarra nazanez; eta nik, beste Bermiotar askok leguez, gorantzi andiak bialduta daukadaz lanpara orreri. Eperdikareak eta Ardau-maissuak edo *El Riojano*-k aitu daien, erderaz ipintera noa IBAIZABAL-en baimenaz; lanpara orregaitik esanda daukagu aspaldi onetan: «*ya puedes echarle un galgo*».

Niri pasau (1) jatana ezta besterik izan, beiñolako asto koitaduari pasau jakona baiño. Kortan zortzi aska eiegozan, da bere ugazabak aska guztiak pentsuz bete eutsazan, da seguru be asto gaissuak ezekian zeiñi lenengo oratu, ta ezbai onetan egon eizan egun askotan, da azkenean jausi zan adore barik eta goseak ill eieban. Surreder izan balitz asto ori echakon orrelango ezbear edo desgraziarik pasauko; ezbai edo duda barik laster iruntsiko zituan pentsu guztiak bata bestearen atzean edo... danak batera. ¡Mutilla da bera leku askotako pentsuak jaten!

Nik bere eztaukat Surrederren antzik, (Jainkoari ezkerrak) eta asto koitaduarena pasau jat. Aspaldi onetan barri asko egoan Bermio aldean zueri bialtzeko, *lebitapekoak* diñoan leguez... da bakizu ba, au ipiñiko etedot, ori ipiñiko etedot edo a ipiñiko etedot, esku-artetik iguesi eguin eustan denporeak eta... ezer bere ez.

Baiña *lebitapekoak* zirikadea eguin deustan ezkero, asi naiten aska batekoa utsituten.

Emen beiñolako Aiuntamentuen batualdi ondoren izan zan usubilluan, Ankandi ta Chiseti mutilzarkua ta onen arreba neskazarra ta, demoniñuak baiño charrago ibilli eijatzuz (gu ichasotik guiñean) Izpizua kontzejalen kontra. Ankandik, *Cuenca*-ko mandotzarrak langosse beren ankatzarrakaz ia apur bategaitik *atropellau* eguin eieban. Chiseti (beste izenez Ichas-choria) barriz chakurrak baiño bere bizkorrago eiebillen. ¿Nok esango eban? Egunero ibilten ikusten dogunak, uste izaten dogu anketan berauna edo plomua darabillela, aiñ da torpia ta erdaldun antzekoa. Onek konpontzen dituan erlojuak, beren moduan badabiz... len uriko erlojuen kargua beronek eukan, ¿orregaitik eteda ain atzera egotea Bermioko uria bear dituan gauzetan?

Egun atan Izpizua-ren kontra deadar eguiten ebenen artean, Grabiel oguiguiñaren morroia bere garratzenetarikoa eizan; da gure chalupako batek ziñoan (ez sinistu, esamesak baiño eztira ta):—Andia dok orraitiño Zoroecheaz zer-ikusi dauken guztiak ibiltea egun atan, ain su ta gar. Jaungoikoari esker andiak emon beguioez Izpizua ta lagunak morroia bakarrik joateaz; bada ugazaba joan balitz, noruesteko trumoia lango beren betozkoaz bakarrik arri eguinda ichiko zituan konzejalak.

Lengo egun baten ziarduen emen zereguin guichi daukeen batzuk, lanparia norbaitek garbitutera eroan ebala ichas-ertzera, ta amarratzen batek (trapu zuriai edo argui eguiten dabeen gauzai eguiten deutsen leguez) erroakaz oratu ta kendu ta ichas-ondora eroan izan bear dabela. Ba... ¿nok sinistu olango gauzak? Lanparien ordez, kurtsuluren bat izango zan urrean.

Arrien itauneak eguiten ditu *lebitapekoak*; eztakigu ezer. Ortu-Santuko arri ori erdi aztuta neukan neuk; eta uste neban oraingo konfiteruen batek erosi izango ebala, karameluak eguiteko edo. Bada, ¿zertarako da arri ori, Ortu-Santuan, beren lekuan egon ezik? ¿Konfiteruen artean etedago? Berbea dauke erantzuteko Zurbanok (edo Sur-utsak) eta beste Bermioko konfiteruak, ia guztion artean arri ori aurkituten dogun. Lanparia baiño lenago aguertuko da urrean.

Artezkari jauna, gaurko naikoa da. Eskuturra bere minduta daukat ainbeste eskribiduteaz; ez al dira minduko irakurlak eskutitz onen luzetasunaz.

Urte askotan bizi zaitez eta agur. Zeurea

TERTZADUN BAT.

(1) Tertzaduna, *pasau* esaten dogu Bizkai gueienean; baiña orren ordez *guertatu* edo *jazo* oitu leikez.

ASTOA ETA CHIMUA

Biak zuten nagusi
bat merkataria
ibiltzen zana beti
periaz-peria.
Eltzez kargaturikan
joaten zan astoa
janaz belarra eta
noizik bein lastoa.
Chimuak komediak
zituben eguiten
jendeari par asko
zion eraguiten.
Gazta eta gaztañak
baizituben jaten
eta bide guztian
fumatzen zan joaten.
Ala zijoazela
bein bide batean
zutela nagusia
zerbait apartean,
chimu char petralari
zitzaion burura
tentatzen astekoa
asto humill hura.
Eta galdeturikan
astoa zertan zan
hura bezela chimu
zertan jaio etzan,
erantzuera eman
zion seguiduban
astoak ere bear
zirala munduban.
Berak zeukala bada,
berak sobra pena
astoaren ordez ez
chimuba izana.
Gueŗo galdetu zion
dantzatu nai zuben,
dantzatuko zirala
biak, nai bazuben
Esaten bazizkan ark
itz bi belarrian,
dantzan asiko zala
grazi chit aundian.
Oni erantzun zion
jolas ona bazan,
adituko ziola
zer nai zion esan.
Ontan chimuba joanik
belarri batera
zigarro punta bota
zion barrenera.
Eta jarri zanean
chiminia ketan,
astoa zan arrantzaz
dantzan asi bertan.
Lau ankak alchatutzen
zituben batean
baŗidurien joan nai
zubela aidean.
Bera zan trompetero
ta bera dantzari
gabriolak eguiten
zituben ugari,
bañan alako batez
leer eguiñik oso
anka batekin zuben
eguin estropozo.
Eta eroririkan
kargazoi ta guzi,
an zituben gañeko
eltze denak autsi.
. . . . . .
. . . . . .
Onek erakusten du
jostallu diranak,
laguntzat kontatzeko
ez dirala onak.
Eraguiñazo nairik
chorakeriz parrak,
ekartzen dituztela
askotan negarrak.

EUSKALDUN ERDALZALEA

ERRETRATUA

Obe zukean Bassilik,
Egondu bazan issilik.

I

—¿Zer berri Bassili?

—Emen nago ernegatzen aste guzian.

—¿Zergatik ba?

—Erretratuaren zai; erri guziak badaki bialtzeko didatela, beti galdeka daukat jente guzia, eta eskribitu eguiñ bearko diot nere nagusiari,

eguiñ dezala mesede bialdu eraztiaz Jose Palluri, aguindu zidan erretratua.

—Ondo eguingo dezu.

Eguia esateko, erri guzia gortuta zeukan Bassilik bere jardunarekiñ, bere erretratua gora, eta erretratua beera.

II

Muy Siñor mio: Un pabor de suplicación para Jose Pallu, para amandar á mi el erretrato que me está prometerri, porque estoy ernegando con tanto tardamiento.

Andik iru egunera Bassili zegoan beste amar lagunekiñ, eta an dator korrioa Bassilirentzako karta andi batekiñ. Idiki zuan baña etzetorren erretratorik baizik paper andi bat, imprentatua, eta nola etzeukan aldian antiojorik, aguindu zion aizpari irakurri zezala; baña sermoia bezela, guziak ondo aditu zezaten. Ala, irakurri zuan aizpak.

Bassiliren erretratoa, solpan:

Ille beltz eder eta mardula
Artuko luke baleuka,
Baztartutzeko beti-betiko
Oraiñ daraman peluka;
Ederra ere izan diteke
Iñork ezingo du uka,
Edertasuna erosten balitz
Ichustasunaren truka

Aguiñ guziak osorik dauzka
Baña betilliak urdiñ,
Arrigarria; persona baten
Ona bi gauza desberdiñ;
Badiotere Bilbon ipiñi
Dituala oguei aguiñ,
Betille oiek belztutzen berriz
Badu naikua zereguiñ

Kejatutzen da buruko miñaz
Daukala ille gueiegui,
Aguiñaz ere esaten ditu
Orrelako zenbait egui,
Albalituzke siñisterazi
Itz bakoitzean guezur bi,
Damuko luke kontzientzian
Eziñ esana biterdi.

Gazeta batek baño gueiago
Eguneroko berriak
Berak asmatu eta esanak
Guchienian erdiak;
Egun batian guezur diranak
Bestean ditu eguiak,
Baña gauz ona; guziak dauzka
Prezio baten jarriak.

Egun gueiena igarotzen du
Isspilluan jai ta aste,
Luzitu naia ezta milagro
Dagoalarik aiñ gazte;
Oguei bat urte aitortzen ditu
Gorderik beste ainbeste,
Sekreto oien berririk iñork
Dakienik, eztu uste

Onen ustean mundu guzia
Dago berari beguira,
Baña guziak ikuste utzaz
Beingoan aspertzen dira,
Ibilli arren erromeri ta
Plazatan gira ta bira,
Saldu ezin dan prenda bezela
Atzera dator errira

Dantza leku ta plaza danetan
Bera da beti aurrena,
Lanik asko du disimulatu
Eziñik bere errena,
Guziak gandik aditzia nai
Bera dala ederrena,
Bere burua edertu naia
Da daukan gaitzik zarrena

Senargaiak bi izandu ditu
Baldiñ badare gaztia,
Barkillerua lenbizikua
Soldadu zarra bestia,
Baña diote: ¿zertako degu
Pelukadun emaztia?
«Aurrera ere obeko degu
»Lenbezelasse uztia».

Apainduririk eztuala nai
Baña bai ondo jaztia,
Piper miña da onentzat iñor
Apaiñago ikustia;
Fed-esperantzak zerbait ba ditu
Baña arako bestia,
Apurchoren bat badauka ere
Bera ondocho kostia.

Pasientzia asko bear du
Gure Bassili tristiak,
Auek eztzunta ez botatzeko
Tripan dituan estiak;
Lertu eztediñ eziñ nitzake
Esan gaurkoan guztiak,
Urrengo baten bere baimenaz
Esango ditut bestiak.

Zurkaizturik guelditu zan Bassili berso oiek aditzian. Baña nozpaitere, arnas andi bat botata, esan zuan «¡ka! »¡inposilbe¡; es kibokasion, deskuido. »Karta bat eguiñ bear diot José Palluri.»

Muy Señor mío: El ertrato solpa no es asi para mi, sino para Cassill Mortzill Tarabilla, como á mi parecido, y digamúste si es kibocasion para ermediar deskuido.

Baña, miruste y que preskura! Jose Palluk etzion erantzun kartari.

Auzoan bizi ziran Bassiliren bi adiskide, Kassill ta Zizili, aizpak. Pensatu zuan Bassilik, bere izena borratu berso aietatik, onen lekuan Zizilirena ipini eta Kasilli bialtzea, esanaz karteskalki edo sobrean Bassiliren izena etorri zala, baña barruan Zizilirena zetorrela, eta por si akaso, beguiratzeko bere aizparentzat ote zan erretrato ura.

Bassilik bialdu zuan ba bere ama karta edo solpako erretratuarekiñ ¡Leku onera!

Amak jo zuan atea Kassillen echean deadar eguiñaz: ¡Kassiiiiill...! Baña.

Erantzu zuan Zizilik
»Emen eztago Kassilik;
»Obe zukean Bassillik
»Egondu bazan issillik».

P. M.

1902-ko Baguillaren 16-an.

NERE MAITEARI

Nai ainbat aldiz eziñ ikusi
urruti zauskat echetik
egunak ditun ordu danetan
oroitutzen naiz zugatik
beti Mariaz pensatzen nago
eziñ joan zait burutik
sinistazazu nai dizudala
biotzan erdi-erditik.

Beti zugana bialdutzen nau
amoriuan indarrak
nere barrena alaitutzen du
zu ikusteak bakarrak
¿nor ez lezake bereganatu
zure beiratu ederrak?...
Nik etzaduzkat ukatutzeko
Jaungoikoari ezkerrak.

Amak mundura eguintakoa
izar bat zoragarria
zorionian egun batian
nere aurrian jarria
ainbezteraño gustaturikan
nik bota nizun beguia
zu ainbat iñor ez det nik maite
esaten dizut eguia.

Zembateraño maite zaitudan
ez dezu asko pensatzen
sure berriak jakiñ artean
ni enaiz sosegatutzen
arreta aundiz gau eta egun
ari naiz erregututzen
albada biek ezkondu eta
luzaro bizi gaitezen.

PEDRO AGUIRRE.

Neurtitz-Kalte (1)

Neurtitz-kalte da guizon bat ikusgarria, ez *garri* sendoa daukalako, baiña bai ostikada sendoak iartutiten dabezalako. Eche-kalte baten ostikadak echeak artuten dituz guienetan, Neurtitz-kalterenak neurtizentzako dira beti. Beti neurtitzentzako, baiña ez neurtitzentzako bakarrik; bada sarritan gure Ama euskereari bere elduten iakoz Neurtitz-kalteren ostikada banakachuak. Neurtitz-kalteren ostikadak dauken gauza on bat da uste-uste bakoak direla. Bere ustea ezta euskereari ta neurtitzari ostikadarik, (eztau berak olangorik gura) emotea. Baña iazoten da... Leengo egun baten esaterako, Neurtitz kaltek emon gura eutsan ostikada bat bere erriko alkateari, ta oiñdiño eztakigu alkate errek ostikada ori artu daben edo ez. Ziur dakiguna da neurtitzak eta euskerea dagozala eske Neurtitzkalteri, eztaiola iñori bota ostikadarik, ez alkateari, ez amandreri, neurtitzak eta euskerea bildur guichiagogaz bizi daitezan.

Aramen Neurtitz-kaltek alkateari emon gura eutsan ostikadea:

NEURE ERRIKO ALKATEARI

Eztakit nondik *aparesidu*
ziñan, *mostronco*, errian,
oraiñgo *bienio acabukoan*,
alkate izan gurean,
Baiña bakigu *elegiduta*
baita *nombreuta* zaoela,
graziek zeure diru askori,
erriko alkate ustela

Neurtitz-kalteren ostikadak zeinbat diran or beguitu. Leenengo ostikadea *agertuten* da *aparesidu*. ta ostikada au artu dabena euskerea da, ez alkatea. Bigarren ostikadea, *mostronco*, biantzako da. Irugarrena da «ziñan *mostronco* errian». Ta au neurtitzarentzat doia artez artez, okertasun guztiegaz, apurturik bidean abots-iana edo *sinalefa*. Era onetakoa da «alkate izan gurean». Baita bardiñak dira «*grasiek* zeure diru askori» ta «erriko alkate ustela» bere. ¡Euskereantzako ostikada makalak eztira *bienio, akabukoan, elegiduta, nombreuta* ta *grasiek* ¡Euskereantzako zorigachik andienak, edo *desgrasirik terribleanak* orrek dira!

¿Bakizue oraiñ, irakurla maiteak, zeinbat ostikada artu bear izan daben *zortziko* baten barruan, bai neurtitzak eta bai euskereak, Neurtitzkaltek alkateari ostikada erdi bat emoteko? Zazpi euskereak eta iru neurtitzak. Iru baiño gueiago ezpadira neurtitzak arturikoak... Beiñik beiñ azkanengo neurtizeko *ustela* neurtitz-ondarra edo *rripioa* da eta bigarreneko *mostronco* bere anche anche dabill. Ta astia bageunko Neurtitz-kalteren gogo-itz edo *poesia* guztia irakurteko, an ikusiko geunkez neurtitz *erren* edo anka-apurtu gueiago... eta ostikada askoren *efecto necesarioak* asko eta asko. Aiñbeste ze, erderazko *asko* emongo leuskigu irakurten iarraituteak. Urrengo geirarte.

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

(1) Neurtitza ta bertsoa bat dira.

Euskalduntasuna dala ta eztela.

Guizon bat ezagutu neban nik, aiñ prakerrea, aiñ pirria, aiñ latza, aiñ sutukorra eze, itaune uts bat eguin bear baeban iñoz, aurrekoaz asarratu barik nekez amaituko eban gauzarik. Beiñ, auzokoren batek zubill bat bere eche-aurrean ichi ebalako, joan jakon, eta badiñotso:—¿Zegaitik zuk, guizon gaizto, deunga, santar, auzochar, matrakazale, arranu orrek ekarri dozu ona zubill ori?—Eta onetara iñun direanak esan eutsazan, da, jakiña, besteari be echakon ondo etorri orrelango iraiñak entzutea gueiagoko barik, eta azkenez asarrea sortu zan bien artean. Itandu baleutso, iraiñik edo ofensarik esan baga, zegaitik eroan eban ara zubilla, laster alkar aituko eben ezertako asarre barik.

Azkenengo *La Patria*-ren gueia irakurri guenduanean, guizon orren gomutea etorri jakun gogora; bada, periodiku orrek orainguan arechen antzeko gauzea eguin dau. ¿Zegaitik jarri ezkenduen Sabino Arana jauna

katigu dagoala? ¡Guizona, orisse itandu eguizu!..... baña etzakiguz etorri esaten, guri zuzenduriko irakurkizunchu aren azken aldera esan zeuskuzan gauzak.

Ezin dabela sinistu gu, besteak leguez, Gobiernuaren alde gagozala. Ondo jakin bear leuke ba zetan gagozan orretan; ¿zeinbat bider esan bear etedogu? IBAIZABAL-ek eztau urten Gobiernuaren kontra ez alde eguiteko, ta gaur artean ezteutso kontrarik eguin, ezta lagun be. Besterik esatea ta adarra gogoz jotea, parra.

Euskera ona eukiarren, Euskalerriaren arerioen adiskide zintzoak gareala; euskerea miiñean ez eze, biotz sendo ta oso bategaz lagundurik euki bear dala; euskereak bakarrik eztabela ezer esan gura, euskaldun odola ta gogoa bear direala. Berba baten, *excomunio*-a jaurti ezpadeusku, ur urrean ibilli jaku. Euskaldun chartzat bota gaitu.

¿Nor da *La Patria* edo gauza ori eguin dabena, edo nundik daukaz eskubideak euskalduntasuneko aguiriak edo *patente*-ak kendu ta emoteko? Erakutsi beiz eskubideok, eta orduan makurtuko gajakoz parkezka; ordurarte ezpei igon pulpitora, alper alperrik izango dau ta. *Patente*-az edo *patente* barik, *La Patria*-z edo irakurkizun orren eguilleaz neurtuteko besteko euskalduntasuna aldean eukiko dogu.

Eta orain, guk eguin dogun utsaren azalketea; Sabino Arana jauna katigu artu eben egunean, aste atako gueia eguinda egoan. (IBAIZABALek eztauko bere moldateguirik, eta ezin izaten dau icharon berak gura izango leukean ordurarte, azken albista edo barriak ipinteko). Bigarren astean, aztu eguin jakun; bada *asteko berriak* ipinten dabezanak, esku-artean zereguiñ asko darabiz, eta orain *barri* ori leguez, beste aste batzuetan be inoiz joan jakoz burutik beste albisten batzuk, aurreragoko egunetan ipinteko gogoa eukiarren. Irugarren astean berandu erechi gueutsan ezer esatea.

Orra egui garbia; ta sinisbidean jarteko edonor, diñogu, barri orri ez ipinteko gogoa euki baguendu, argui argui ta artez artez iñoren ta ezeren ardura barik esango guendukela, iñoren zordun ezkara-ta.

Euskerea maite eban guztia adiskidetzat ezagutuko ebala esan ebanez IBAIZABAL-ek bere lenengo gueian, da Sabino Arana jauna euskera-zalea dala edonok dakianez; euskera-zalea dan aldetik, guk be atsakabe dogu bere katigutasuna, ta ainbat lasterren zabalduko al deutsez ateak, bai berari ta bai Damaso Arana-ri be.

BLOA.

ASTEKO BERRIAK

Zarautzen 1902.n Garagarillaren 17.n

IBAIZABAL-en artezkari jauna.

Nere jaun eta lagun èuskalzalea:

Zarauzko jendeak beti azaldu badu bere katolikotasuna, modu berezi batean eguin du aita San Antonioren bederatziurrengo elizkizunetan; lenago esan nion bezela goizeko 5 ½ tan eguiten zan meza santuaz batera nobizio edo prailleguei batek pulpitutik irakurtzen zuala, esan nezake beldurrik gabe, ordu artako zar eta gazte, ezkondu eta ezkongai, aita prailleen elizan erriko gueienak zirala. Baña ¿zer esango diot azken eguneko edo santu gloriosoaren eguneko elizkizunagatik, baldin nere adimentua arraz mocha eta argala bada? Esango diot bai, goiz orretan nere barrua atseguin aundi batez bete dala, eta eztedala dudarik jartzen San Antonioren bitartez grazia ugariak etorriko dirala erri onen gañera.

Goizeko 5 ¼ tan asi ziran kanpaiak bueltaka eta 5 ½ tan Boztrako Lenapezpiku jaunak asi zuan meza santua, lengo egunetan bezela .denbora berean eguiten zala bederatziurrena, gure izkuntza ederrean kantaturik; ondorean Lenapezpiku jaunak berak eman du komunioa, guchienez 400 lagunek Jauna artu zutela, oien artean ikusi det karabiñeruen kapitan jauna, bere emazte ta morroiakin; aurrera, Zarauztarrak, aurrera, ori da gure gurasoak joan ziran bidea ta segurua. Bederatzietan meza nagusia San Antonioren aldaran, ondorean laztantzeko eman zan santuaren ondonea edo erlikia; ontan bukatu ditugu oraingoz santu gloriosoaren festak.

Joan dan igandeañ kantatu du epistola lenengoz D. Pedro Eizaguirrek, parroki onetan meza nagusian; ondorean emanik bere lagun eta adiskideai errepresku edo amaiketakoa.

Larunbatean ezbear bat guertatu zaie jaun batzuri, erri onetako allepunta deitzen zaion lekuan; lau lagun zijoazten automobil batean Bilbora, eta orma edo pareta jorikan elbarritu dira iru, nagusia gueien.

Egun bi igaro ditut erriz bestera joanik, ez nuen uste erderaren kutsurik ere ikustea ¿baña zer? neronen lagunen umeak diote *tio* ta *tia*; ¿naiko dezute, lagunak, maketo eta maketa zueri deitzea? Eztet uste; bada zuen umeak ere esan bezate osaba eta izeba. Esango dezute, bai, Madrillen izan da beren izeba, eta orrek oitu ditu ala gaizki, esan diezute orrelakoari eztezutela Madrilko erdera gorrotatzen, baña asko bai gure ama Euskera maitatzen dezutela, eta orregatik euskaraz zeuen umeak itzeguitea nai dezutela.

Lengo guizaldian edo eunkidan Filipiñetan, aguindu zien misioneru jaunai Lenapezpiku jaunak, norbere izkuntzan eskrikitzeko, eta berari presentatzeko; oraindik osasun onez arkitzen dan San Iñizioren seme batek eskribitu zuan gure euskaraz; Lenapezpiku jaunak galdetu zuan zer izketa zan, eta erantzun zioten:

—Jauna, aita San Franzisko Jabierkoak itzeguiten zuana.

Agur ta urrengo arte; zure lagun.

J. E.

Donostiako Aiuntamentuak erabagai dau, uda goienean uri atara eroatea Guernikako Aritzaren seme bat, eta *Plaza de los Fueros* deituten jakon tokian jartea.

Zabaldu Euskalerrian Aritz orren semeak, eurak ikusiaz aztu eztaigun euskaldunak zer izan garean.

Bilbon, amaika errejidore kendu dabez euren kargutik, Argentinarrai ondo-etorria emon eutsenean esan ebelako, emengo *nacionalista*-k errejidoretzat autatutakoak zireala eurak.

Minduten gaitu errejidore orrek Uriko-echetik aterateak, gure euskera maite oni begui samur maitaleakaz beguiratuten eutselako. Ta orra proba edo irargui bat.

Azken aurreko batu-aldian, amaika errejidore onek eta beste iruk derichot, azaldu eben asmo bat, eta zan: Gaurtik aurrera Bilboko uriaren serbitzari edo empleaduak izan daitezala Euskalerriko semeak, eta onen artean euskera dakienak izateko naiagoak (preferido-ak).

Asmo onek balebiz Euskalerriko uri guztietan ziur gagoz euskaldun askok, chakur chikiari bakarrik maitetasuna deutseenak, maiteago izango leukee gaur baztertuta daukeen gure izkerea ezertarako eztala gauza-ta.

Errenteriatik

Toki asko bearko nuke Ibaizabalen esan nai detan guzia jartzeko, baña nola beste errietako berriak ipintzeko ere bear baituen lekua, atsekabe aundiarekin esango ditut itz batzuek bakarrak igande arratzean emengo Orfeoiak duen Biltokian izandu zan Euskal-festaren gañean.

Donostitik etorri ziran Pepe Artola eta bere beste lagun batzuek festa eder hura emen eguitera.

Erakutsi zizkiguten «Bishente», «Shordo» eta «Crispiñ eta Crispiña».

Salan ainbeste gende zegon (kanpotarrak ere bai) non esaten dan bezela etzan orratz buru bat jartzeko ainbat toki, eta onen faltan gende asko guelditu zan kanpoan.

Guziak chit ederki lana eguiñ zuten, gendeak algara gozo franko eguin zuen eta oso kontentu gelditu zan.

Uste det dirua poliki eramanak izan bear dutela Donosti aldera, eta seguru nago berriz ere etortzen badira, nai degun bezela, gendeak pozez beeko duela Biltokia, bada deseatzen guelditu guiñan maiz shamar orrelako festa politak ikusteko. Urren arte bada eta izan dedilla lenbailen.

Gure adiskide Estanislao Sanperio-k jo zituen pianon euskal soñu ederrak.

Oraiñ erregu bat nere adiskide maite Anthon-Olaran-i ¿Zergatik zuek ere tarteka ez dituzute euskeraz eguintako lan polit oietakoak erakusten? Badakizu, zuk ederki guiatzen dezun Orfeoi ortan genderik gueiena (iru edo lau ez besteak) euskalduna dela, eta Biltokira joaten gueran gueienak ere ala guerala. Oraiñ bada, gende askoren partetik eta neretik ere bai, eskatzen dizut, emendik aurrera eguiñ dezazutela zerbait gure izkuntza ederrian. Badakit zure lagunan artean izango dirala au ontzat artuko ez dutenak, baña badituzu beste asko pozik eta pozik euskeraz lana eguiteko dezeatzen daudenak. Uste degu euskaldun ona zerala, eta nola eskatzen dan au eguitea zure gaiñ dagoen, espero du gendea beti bezela bere gustora eguitera zaiatuko zezala eta ala eguiten badezu, egon zindezke sinistaturik lagunan faltan etzerala gueldituko.

Guazen oraiñ gendearekin: ¿Eziñ aldezute farra modu obean eguiñ Biltokian? Zergatik guertatzen da gaur, edozeiñ gauzakin asten dirala farrez (ojuka) ojuka noiz isildu eztakitela, eta bitartean ezaten dan guzia ezta aditzen. Ikasi bada denak urrengorako farra isillik eguiten.

Alkate jauna: Badira (oso guchi, bai) baña badira batzuek zezenetako plazan bezela zato ardoakin Biltokira joaten diranak eta izketan aitzen diranak bazterrekoari pakean usten ez diotela. ¿Ez lezake bedorrek ori galerazi bialduaz ara bere mendeko guizon pare bat? Uste det baietz, eta bidez esan barrenen fumatzen dutenari irten ditezela kanpora, bada barrenen berorik aski izaten da, orretan gañera ketatu gabe sala.

Eta bukatzeko oarkera bat Ayuntamentuari. Biltokiko bean dago peajelekua edo Alondeguia, non egoten diran ezpirituz betetako barrikak. ¿Zer guertatuko litzake festa dan gau batean su artuko baluke eche arrek? Dudarik gabe ikaragarrizko doakabeak, bada oraiñ Biltokiak sartzeko duen ate chiki, bakar eta traketz artatik eziñ aterarik gueldituko litzake gendea eta bertan kiskalduak gueldituko guiñake.

Nola guerta liteken gauza baitan au, obea litzake diru piskabat gastatu eta, edo ate berri bat eguin, edo lengoa zabaldu, bada an gastatuko liraken diruak baña gueiago balio du lagun bat bakarraren biziak.

Gauza chit bearra da au zerbait eguitea, gaur edo biyar negargarrizko egunen bat izan ez dezagun.

E. E.

IZKIRIMIRIAK

Egun batean Perrando zijoala asto batekin bide nagusitik aurrera eldu zan kateara ta mikeleteak eskatzen dio dirua.

—¿Zergatik?

—Aston emen pasatzeagatik.

—¿Eta nik eztet pagatzen ta, astoak bai? ¿Nola da ori?

—Gauza garbia da ori. Abereak bidea ondatzen dutelako. Gurdiak eta kocheak ere pagatzen dute karga asko eramaten dutelako.

—¿Ta nola ni menditik iñoiz etortzean egur edo iratze sorta batekin bizkarrean ez dirazu kobratzen dirurik?

—Bizkarrean karga eramatea libre dalako.

—¿Bai? dio Perrandok, eta ori esateakin batean makurtu zan astoaren tripa-pean eta bizkarrean arturik seguitu zuan bidean aurrera mikeleteari esanaz: eztizut katerik pagatzen zergatik zedorrek esan dirazu bizkarrean karga eramatea libre dala.

¡AIZER BI!

Ur saltzalle bat zijoalarik
Kalian egun batian
mirabecho bat, bere esaguna,
ikusi etzuena aspaldian
uste-gabian jarri zitzaion
begira bere aurrian.
Ur zaltzalleak utzirikanen
bere ontziyak lurrian
ziñaturikan beiñ ta bi aldiz
arritu zan siñalian
dio: ezazu neskachachua
Jainkoaren izenian
¿zu zera edo zan zure aizpa
ill zana joandan urtian?
erantzun zazu bada ez dakit
zein izan otelitekian.
Ta neskach arrek erantzun zion
berealase itz biziyan:
zan nere aizpa ¡tristea! jauna
ill zana lengo urtian
ta ni egon nitzan hurase bañan
chit gaizkiago oyian.

ENRIQUE ELIZECHEA

Karlos V-ren guerra bukatzean irichi omen ziran kristiñoak goierriko uri batera eta jo omen zuten pregoia esanaz, armarik zeukanak bere mendean bereala entregatzeko, guero errejistoa eguingo zutela eta armarik billatzen ziotena fusillatua izango zala.

Sutegui batera joan ziran soldadu batzuek beren eguikizunen batekin eta ikusi zituzten an sei fusill zaar konpontzeko, gauza etziralako karlistak botatakoak. Artu zuten preso errementaria eta fusillarekin batera eraman zuten kartzelara. Berealasse batu ziran juezak eta eguin zioten *juicio sumarísimo* papera eta sentenciatu zuten afusillatu izatera.

Nola aitortu zuan etzekiala erderaz, jarri zioten interpretea eta onek euskararatu zion sentenzia. Aitu zutenean lan au, juezak esan zion interpreteari:—*Pregúntele usted si tiene que alegar algo en su favor.* Eta errementariak interprete bearrik gabe erantzun zion juezari: *Si, siñor que me pusillen con esos pusilles.* Juezak eta gañerakoak naiko farra eguin zutenean irteera aren bidez, biraldu zuten echera gure errementaria bere pusillzaar ta guzi.

L. OYA.

IGARKIZUNAK

I

—Aizazu Marichu, ¿zeinbat arrautza daude saski orretan? ¿Seireun bai?

—Ez jauna, guchiago daude.

—¿Zenbat ba?

—Biñaka, irunaka, launaka, bosnaka, edo naiz seiñaka kontatzen baditu, bat sobra aterako zaio beti. Baña zazpiñaka kontatzen baditu eguin-eguiñean aterako zaizka, ez bat gueiago eta ez bat guchiago.

¿Zenbat arrautza zeuden saski artan?

P. M.

II

Egunero izaten
Naiz ni guztiakin
Makiña bat istillu
Dezute nerekin,
Ni bialtzeagatik
¿Zer ez dezute eguin?
Baña bialdu arren
Laster naiz zubekin.
¿Ez dezute somatzen
Zein naizen, onekin?

E. ELIZECHEA.

III

AK 1

GUELBENZU.

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Pipa;* bigarrena, *arraiak subi-pean.*

Aste onetan eztenusku iñok epairik bialdu. Lenengoa etzan aiñ erreza igarten, baiña bai bigarrena. Ia aste onetakoakaz beste ainbeste jazoten dan; alan izango balitz, uste izango guenduke, edo aspertu eguin direala igartzalleok edo buruak moteldu jakezala.

GURE SUSKRIZIÑO-BATZAILLAK

BIZKAIAN

Bermeo, José Antonio Zabala; *Lekeitio* Julián Zarreta; *Lemona*, Prudencio Arrieta; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Munguia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre; *Durango*, Roberto Soleaga.

GUIPUZKOAN

Donostia, Zacarias Leizaola, Loyola, 17, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea, *Bergara*, Francisco Oyanguren; *Tolosa*, Baleriano Mokoroa; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mondragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julián Odriozola; *Rentería*, Gabriel Echebeste; *Pasaian*, Juan Valverde; *Arechabaletan*, Francisco Galdós; *Ondarroan*, Aquilino Echevarria.

LA EDITORIAL VIZCAINA derichon moldaguintzan
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JAUN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.n » . . . . . » 0,20 »
4.n » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak